

Bitartekaritza
eta Egoitza Programa
Programa de Mediación
y Residencia
2021

GETXOARTE

Mugurdiak Lugorrian

Izaro Ieregi



Getxo
bizi ezazu



Getxo
KULTUR ETXEA
bizi ezazu

Izaro Ieregik (Algorta, 1987) Getxoarte egonaldi artistikoko beka jaso du eta *Mugurdiak Lugoerrian* izeneko proiektua jarri du abian. Proiektua tailer formatuko bost saiok osatzen dute, eta filmazio batekin amaituko da. Saio bakoitzean film horren gaia zuzenean zeharkatzen duten esparruak jorratuko dira.

Izaro Ieregi (Algorta, 1987), recibe la beca de residencia artística Getxoarte y pone en marcha el proyecto «*Mugurdiak Lugoerrian*». Un proyecto que se estructura en cinco sesiones con formato taller que acaban en un rodaje. En cada sesión se trabajarán los campos que atraviesan directamente la temática de esta película.



Gaur egun fisikotasun mugatuarekin egiten dugu topo, zeinetan geure bizitzen eguneroko koreografia are mugatuago dagoen. Hur-hurreko mundu mailako kolapso egoera hau uzten ari den arrastoan sakonduko du lan honek. Biografikoa eta fikziozkoa denaren artean kulunkan egongo den filma grabatzea da helburua. Horretarako, tailer formatuko lan-saioak egingo dira partaideekin batera. Geure gorputzak ikertuko ditugu gorputz-tekniken, teknika somatikoekin eta autoexplorazioekin bitartez. Artistaren jarduna aktibatzen duten interes estetiko eta filosofiko ezberdinetan barrena ibiliko dira tailerrak. Keinu eta testu ezberdinak aztertu eta hezurmamituko dira, ondoren horiek agertokira eramateko. Partaideen artean elkarrizketa bat sortuko da, geure izateaz, zaurgarritasunaz, antsietateaz eta munduan presente dauden gorputz gisa dauzkagun gaitasunez hitz egiteko. Geure gorputz nekatu, zauritu eta unatuen aukerei eginiko deia, etorkizun ziurgabe honetarako aldaketa baten eske.

Actualmente nos encontramos con una fisicidad limitada, donde la coreografía cotidiana de nuestras vidas es más limitada, si cabe. Mediante este trabajo se indagará en los posos que está dejando el actual estado de inminente colapso mundial en nuestros cuerpos. Con la finalidad de grabar una película que oscile entre lo biográfico y lo ficcional. Para ello se realizarán sesiones de trabajo en formato taller con las participantes donde investigaremos nuestros cuerpos por medio de diferentes técnicas corporales, somáticas y de autoexploración. En los talleres se transitará por diferentes intereses estéticos y filosóficos que activan la práctica de la artista. Se analizarán y encarnarán diferentes gestos y textos para después ponerlos en escena. Se creará un diálogo entre las participantes donde hablaremos de la fragilidad de nuestras existencias, la vulnerabilidad, la ansiedad y de lo capaces que somos como cuerpos presentes en el mundo. Un llamamiento a las posibilidades de nuestros cuerpos cansados, heridos, fatigados apelando a un cambio en este futuro incierto.

Izaro Ieregi

Lizentziaduna da EHUko Arte Ederren Fakultatean, eta 2014tik 2019ra arte Bilboko Okela espazioaren fundatzaile eta zuzendarietako bat izan da. Ieregik eskultura-noziodun performancetik abiatuta egiten du lan, gorputzaren ahalmena jorratzeko. Gaur egun irakasle da Arte Ederren Fakultatean, eta 2020an JAIren (Jardun Artistikoentzako Institutua) lehenengo edizioan parte hartu zuen. Gaur egun DAI programan (Dutch Art Institute) dihardu. Artiumen, Bilboko Guggenheimen, Montehermoson eta Tabakalera erakutsi du bere lana, besteak beste.

Es licenciada por la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU y entre 2014 y 2019 cofundadora y co-dirige el espacio Okela, en Bilbao. Ieregi trabaja desde la performance con noción escultórica para remitir a la potencialidad del cuerpo. Hoy en día es profesora en la facultad de BBAA y en el 2020 ha participado en la primera edición de JAI (Instituto de prácticas artísticas) y actualmente cursa el programa DAI (Dutch Art Institute). Ha mostrado su trabajo en Artium, el Guggenheim Bilbao, Montehermoso o Tabakalera, entre otros.

Tailerrak*

Talleres

1. SAIOA: **TALDEA ETA GORPUTZA (IZOTZALDIA URTZEA)**

**Uztailaren 26an,
astelehena, 16:00etatik
18:00etara
Romo Kultur Etxean.**

Ariketak eta partiturak pisu-arekin, grabitatearekin eta orekarekin esperimentatzeko: gorputza objektu modura.

*Askotariko materialen proiektzioa.
Partekatzea (elkarrizketa horietatik abiatuta filmaketarako materiala sortuko da).*

2. SAIOA: **JAUZIAREN DENBORAZKOTASUNA (ERORTZEKO ERARI BURUZ)**

**Uztailaren 27an,
asteartea, 16:00etatik
18:00etara Azkorriko
labarretan.**

Gorputz-objektu / Bihurrikatze-ahots erlazioari buruzko ariketak eta partiturak.

*Askotariko materialen irakurketa.
Partekatzea (elkarrizketa horietatik abiatuta filmaketarako materiala sortuko da).*

3. SAIOA: **DANTZATU, DANTZATU, MADARIKATUOK (AKTIBAZIO KIMIKOA)**

**Uztailaren 28an,
asteazkena,
16:00etatik 18:00etara
Genaratxun.**

Bibrazioari eta mugimenduari buruzko ariketak.

*Askotariko materialen irakurketa.
Partekatzea (elkarrizketa horietatik abiatuta filmaketarako materiala sortuko da).*

4. SAIOA: **BELDURRA ETA BITARTEKOA (EKINTZA BIOLENTOAGO BAT)**

**Uztailaren 29an,
osteguna,
16:00etatik 18:00etara
Romo Kultur Etxean.**

Argi eta iluntasun ariketak.

*Askotariko materialen proiektzioa.
Partekatzea (elkarrizketa horietatik abiatuta filmaketarako materiala sortuko da).*

5. SAIOA: **MUGURDIAK LUGORRIAN**

**Uztailak 30, ostirala,
16:00etatik 21:00etara.**

Filmaketa aipatutako lekuetan.

1ª SESIÓN: **EL GRUPO Y EL CUERPO (ROMPER EL HIELO)**

**26 de julio, lunes,
de 16:00 a 18:00
en Romo Kultur Etxea.**

Ejercicios y partituras para experimentar con el peso, la gravedad y el equilibrio: el cuerpo como objeto.

*Proyección de diferentes materiales.
Compartir (a partir de estas conversaciones se creará material para el rodaje).*

2ª SESIÓN: **LA TEMPORALIDAD DEL SALTO (SOBRE COMO CAER)**

**27 de julio, martes,
de 16:00 a 18:00 en los
acantilados de Azkorri.**

Ejercicios y partituras sobre la relación cuerpo-objeto / contorsión-voz.

*Lectura de diferentes materiales.
Compartir (a partir de estas conversaciones se creará material para el rodaje).*

3ª SESIÓN: **DANZAD, DANZAD MALDITAS (ACTIVACIÓN QUÍMICA)**

**28 de julio, miércoles,
de 16:00 a 18:00
en Genaratxu.**

Ejercicios sobre vibración y movimiento.

*Lectura de diferentes materiales.
Compartir (a partir de estas conversaciones se creará material para el rodaje).*

4ª SESIÓN: **EL MIEDO Y EL MEDIO (UN ACTO MÁS VIOLENTO)**

**29 de julio, jueves,
de 16:00 a 18:00
en Romo Kultur Etxea.**

Ejercicios de luz y oscuridad.

*Proyección de diferentes materiales.
Compartir (a partir de estas conversaciones se creará material para el rodaje).*

5ª SESIÓN: **MUGURDIAK LUGORRIAN**

**30 de julio, viernes,
de 16:00 a 21:00.**

Rodaje en los lugares ya mencionados.

*Tailerren eta filmaketaren kokapenak aldatu egin ahal izango dira eguraldiaren arabera. Tailerrak eta filmaketa elebitan izango dira.

Los lugares de los talleres y rodaje podrán variar según las condiciones meteorológicas. Los talleres y el rodaje serán en bilingüe.

IZEN EMATEAK:

Saioetan parte hartzeko interesa dutenek mezu elektronikoa bidali behar dute getxoarte@getxo.eus helbidera uztailaren 10a baino lehen, eta gehienez ere orrialde bateko motibazio eskutitza erantsi behar dute. Hautaketa Izaro leregiren esku egongo da, eta partaideen interesak eta motibazioa hartuko ditu kontuan.

INSCRIPCIONES:

Las personas interesadas en participar en las sesiones deben enviar un e-mail a getxoarte@getxo.eus adjuntando una carta de motivación de máximo una página antes del día 10 de julio. La selección correrá a cargo de Izaro leregi y tendrá en cuenta los intereses y la motivación de las participantes.

GETXOARTE